



ARANZADI
ETNOGRAFIA
BILDUMA

BILDUMA HONETAKO LIBURUAK
LIBROS DE ESTA COLECCIÓN

1

Solstizioen inguruko ospakizunak
Nafarroako zenbait hizkeratan emanak.
Errituen zabalera eta ospakizunen
hari ezberdinak

Koldo Artola Kortajarena

2

500 años de presencia vasca
en el Atlántico Norte

Miren Egaña Goya

3


Etnografia bilduma bat
Gipuzkoarentzat. Una colección
etnográfica para Gipuzkoa

Maite Errarte Zurutuza,
Suberri Matelo Mitxelena (ed.)

4

Ganbara bilduma.
Altzako etxe batera bidaia
60ko hamarkadan

Ganbara taldea



 **aranzadi**
zientzia elkartea

 **Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Departamentuak eta Zerbitzuak
Cooperación, Juventud y Deportes

 **ETORKIZUNA ORAIN**
Es futuro

 **ETORKIZUNA ORAIN**
Es futuro



Altzako Historia Mintegia



ARANZADI
ETNOGRAFIA
BILDUMA

4

GANBARA BILDUMA

ALTZAKO ETXE BATERA BIDAIA 60KO HAMARKADAN

Ganbara taldea



ARANZADI
ETNOGRAFIA
BILDUMA

4



CALEFACCION
POR AGUA CALIENTE
LA GAS BUTANO!

AMORRESE:
DISCUSTOS
SUCIEDAD
MUMOS Y
CENIZAS



GANBARA BILDUMA

ALTZAKO ETXE BATERA BIDAIA

60KO HAMARKADAN

Ganbara taldea



ARANZADI ETNOGRAFIA BILDUMA



Zorroagaina, 11
20014 Donostia / San Sebastián
Tel.: 943 466142
e-mail: idazkaritza@aranzadi.eus
www.aranzadi.eus

Editoreak : **Maite Errarte Zurutuza, Suberri Matelo Mitxelena.**

Testu-egileak: **Altzako Historia Mintegia, Juantxo Agirre Mauleon, Javier Cantera Depetris, Aintzane Cortajarena Alejos, Maite Errarte Zurutuza, Suberri Matelo Mitxelena, Luzia Salamanca Regulez.**

Aranzadi Etnografia Bildumaren Zuzendaria: **Fermin Leizaola Calvo**

Edizioaren koordinazioa / Coordinación de edición: **Juantxo Agirre-Mauleon**

Maketazioa / Maquetación: **Didart**

Inprimategia / Imprinta: **Gráficas Iratxe**

Aranzadi Etnografia Bilduma: 04

L.G. D 01002-2023

ISBN 978-84-17713-90-4

ISSN 2660-5864

Laguntzaileak: **Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentua.**
Gipuzkoako Foru Aldundia

ESKERRAK

Aranzadi Zientzia Elkartearen eta Altzako Historia Mintegiko kideen partez gure eskerrik beroenak Ganbara Bilduma sortu, elikatu, mantendu eta gordetzen lagundu duten kide guztiei, batez ere beren objektuak dohaintzan eman dituztenei: Angel Aranceta, Ángel Calvo, Antxon Alfaro, Buenechea y Hernando, Elena Arrieta, Elisa Garralda, Estibalitz Alberdi, Estrelli de la Cruz, Francisco Lasa, Iñaki Zarranz, Iñigo García, Jaime Albillos, Javi Castro, Javier Cantera, Jesús Mutilva, Joaquín Garrido, Jon Serrano, José Luis Pérez Egea, José María Cendoya, Juanjo Serrano, M. L. Fernández, Martín Barrena, Mikel Vergara, Miren Koro Cantera, Peluquería Urbans, Pilar Lázaro, Regina Fernández, Mikel Legorburu, Anixeta Jatetxea, Rose Marie Stinus, Santi Orbegozo, Tomás Paulis.

Modu berean, eskerrak Aranzadiko Bidebietako Etnografia Laborategian Ganbara bildumarekin lanean jardun duten Lierni Urkizu, Amaia Hernandez, Aintzane Cortajarena eta Luzia Salamanca EHUko Antropologia Graduko ikasleei.

Argitalpen honekin bereziki gogoratu nahi ditugu bidean joan zaizkigun Javier Cantera eta Angel Calvo lagun minak, haien esfortzua gabe Ganbara ez litzatekeelako Aranzadira iritsiko, ezta liburu hau sortuko ere. Liburu hau zuengatik eta zuentzat.

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	7
HITZAURREA	10
RESUMEN DEL CONTENIDO (CAST.)	12
I. GANBARA BILDUMA.....	14
Sarrera	17
Zer da Ganbara bilduma?	17
Bildumaren atzean: Altzako Historia Mintegia	20
Ganbara bildumaren lehen pausuak.....	21
Ganbara plazara	22
Ganbara teilatu bila	25
Ganbara bilduma, Altzaren iraganaren erakusgarri	27
II. GANBARA BILDUMAREN KATALOGOA	32
Katalogoari buruz	34
Sukaldea eta sukaldeko tresneria	36
Elikadura.....	40
Etxeko garbiketa	44
Konforta	48
Higienea eta osasuna.....	52
Ikus-entzunezko gailuak	56
Etxeko instalazioak: elektrizitatea, iturgintza eta sarrailagintza	60
Etxean eta etxetik kanpo lan egitea	64
Jolas eta jostailuak	68
Ikas materiala	72
Erljioa eta sinesmenak.....	76
Etxeko apaingarriak	80

AURKEZPENA

Altzak metamorfosi sakon bat ezagutu zuen XX. mendean zehar, eta landa-eremuko komunitate sekular bat industria-komunitate bihurtu zen. Batez ere kanpoko bulkadek eta tentsioek eragindako eraldaketa horrek aurreko mendeko altzatarrek moldatu ditu, eta aldi historiko horretako protagonista izan diren pertsona eta kolektibo askoren bizi-esperientziaren parte da.

Informazio eta komunikazio teknologietan oinarrituriko ekonomiaren agerpenak, orde, jauzi berri bat ekarri du, eraldaketa berri bat, gure eguneroko bizitzan ezinbesteko parte izan diren ohiturak, espazioak eta objektuak ahanzturan baztertzeko eta desagertzeko puntura eraman arte.

Altzako Historia Mintegiko kideen artean oraina bete-betean bizitzeak duen garrantziaz eta etorkizunik onena eraikitzeko dugun erantzukizunaz jabetuta, beren komunitatearen bilakaera historikoarekin sentsibilizatuta dauden herritar talde gisa, hasiera-hasieratik planteatu zen altzatarren eta haien kolektibitatearen memoria eta esperientzia pertsonala zaintzera bideratutako jardueren eta ekimenen mintegi bat sortzeko proiektua.

Eta ikuspegi horretatik, hain zuzen ere, AHMk hogeita hamazazpi urteetan hainbat eta hainbat jarduera egin ditu helburu horiek lortzeko, eta, jarduera horietako bat Ganbara izan da, 1997. urtetik jatorri industrialeko etxeko objektuen bilduma osatzen, zaintzen eta ezagutzera ematen ahalegindu dena.

Gure ustez, proiektu honek ezin hobeto erantzuten dio gorago azaldu dugun memoria historikoaren eta gertukoaren eremu horretan dagoen hutsunea betetzeko beharrari. Ganbarak ez du gizabanako batzuen bilduma-gustua asetzen duen objektu-bilduma hutsa izan nahi izan. Aitzitik, bokazio soziala izan du.

Gizakia sinbolo sortzaile eta objektu-egilea da. Objektuak zein funtzio duten eta merkantzia gisa duten balioaz baino haratago doaz: nola eskuratu diren, non, zein momentutan, noren bitartez... Objektuak emozio-eramaileak dira eta norberaren bizipenekin lotzen dira, baita esanahien eramaile ere. Objektuek hitz egiten dute.

Gainera, objektu horiek etxeko bizitzari lotuak baldin badaude sinbolismo hori areagotu egiten da. Etxeko hornidurak, etxeari loturiko objektuek etxea osatzen dute. Etxea da munduko gure lehen txokoa; gure lehen unibertsoa.

Objektuak, hortaz, oroimenari eta oroitzapenari lotuak daude, gogorarazteko ahalmena dute eta oroimenean dugun iraganaren irudia sortzen dute. Horregatik, norberaren nortasuna definitzen laguntzen dute, baina baita komunitatearena ere, pertsonak talde bateko kide diren neurrian. Horregatik da garrantzitsua Ganbara.

Esan bezala, AHM 1986an sortu zenetik objektuak biltzen hasi zen eta 1997tik aurrera, Javier Cantera mintegikidearen ekimenari eta haren inguruan bildutako taldeari esker, proiektuak forma hartu zuen, objektuak bildu, sailkatu, ordenatu eta ezagutaraziz. Horrela, dibulgazio-artikuluak argitaratu ziren elkarreko Estibaus buletinean, objektuen fitxak AHMren www.altzanet.eus webgunean eskaini ziren eta erakusketak atondu eta bisita gidatuak egin ziren.

Proiektuaren hasierako helburuetako bat espazio museistiko bat sortzea zen, bildumako objektuak ongi gordetzeko eta zaintzeko, eta komunitatearen eskura jartzeko. Hainbat ahalegin egin ondoren eta urteak aurrera joan ahala, Ganbararen etorkizunarekiko kezka eta ziurgabetasuna errotuz joan ziren.

Hori dela eta, azken urteotan, ahalegin nagusiak Ganbararen funtsaren katalogo osatua egin eta beste elkarte edo erakunde bat bilatzean zentratu dira, bildumaren funtsa bere osotasunean haien baitan uzteko, beti ere objektuak etorkizuneko balizko erakusketa edota beste jardueraren bat burutzeko eskuragarri egoteko asmoarekin; Ganbara bilduma, beste ondare funts handi batean integrazterakoan, ez dela disolbatuko eta izaera propioa edukitzen jarraituko duela ziurtatuz.

Horrela, orain dela pare bat urte, Aranzadi Zientzia Elkartearen Etnografia Sailak bere atea zabaltzeko zizkigun haien "Objektuen Memoria" proiektuaren baitan Ganbara jasotzeko. 2022ko udan Ganbara bildumaren ibilbidean aro berri bati hasiera eman genion Ganbarako objektuak Larratxoko Kultur Etxeko



biltegitik Bidebietako “Ikastetxe Horian” dagoen Etnografia Laborategian gordez.

Oso pozik gaude eta eskerrak emateko arrazoiak baino ez dauzkagu. Eskerrak eman behar dizkiegu urte hauetan guztietan beren objektuak eman dizkigutenean hogoita hamabi lagunei, baita objektu horiek gordetzeko espazioa utzi digun Donostia Kulturari, Larratzoko Kultur Etxean urte horietan guztietan aterpea eman diolako Ganbarari.

Oso eskertuak gaude Aranzadi Zientzia Elkartarekin eta haren kideekin: Fermin Leizaola Etnografia Saileko zuzendariarekin, lehen eta orain gure ondoan egon delako beti; Maite Errarte eta Suberri Matelo Etnografia Saileko ikertzaile gazteekin, profesionaltasunez eta txerazko arretaz Ganbara bere gain hartu dutelako; hala nola Aintzane Cortajarenarekin, bere Gradu Amaierako Lana Ganbarari buruz egiteagatik. Eta, jakina, zorion-une honetan gogoan dauzkagu honezkero utzi gaituzten gure lagunak eta AHMko kideak izan diren Javier Cantera, Ganbara proiektuaren bultzatzaile nagusia, eta Angel Calvo, Etnografia Saileko kide eta maisua.

Aranzadiko bildumen barruan Ganbarako objektuek hitz egiten jarraitu ahal izango dute. Esku artean dugun katalogoa horren froga da, eta etorkizun oparo baten urrats bat besterik ez izatea espero dugu.

Altzan, 2023ko urrian.

Jon Serrano Gamaza,

Altzako Historia Mintegiko presidentea.

 *Altzako Historia Mintegia*

HITZAURREA

Kultura-ondarea edozein kolektibo edo herriren ezaugarri nagusietako bat da. Haren babesa eta ikerketa lege askotan jasota dago, bai udal-mailan, bai autonomia-erkidego mailan, eta baita estatu mailan ere. Gure erakunde publikoak baitira honakoa kontserbatzea bermatzen dutenak eta, horretarako, politika publikoak aplikatzen dituzte. Hala ere, jakinekua da jendarteak, herritar anoni-moek alegia, funtsezko funtzioa duela esparru honetan. Argitalpen honek Euskal Herriko kultura materialeko objektuen funts oso bat jasotzen du, XX. mende-ko eguneroko bizitzaren eta aurrerapen teknologiko-industrialen lekukoa dena. Tresna horiek erabili dituzten pertsonak badakite zer garrantzi izan duten egu-neroko bizitzako ongizatean. Bizarra mozteko makinatxoak, xaboiak eta lixibak, patata-zuritzaila... XXI. mende hasierako gizartean erabiltzen dugun kultura materiala lortzeko beharrezko urrats teknologikoak izan dira. Ezin dugu gure oraina aurreko urrats horiek gabe ulertu. Denboran hain berria den, baina gure ulermenetik hain urrun dagoen iragan hori aurkeztu ahal izateko, oroimen his-torikoa egin behar dugu. Eta horretarako, zer hoberik Altzako Historia Mintegia osatzen duten kideak baino.

Bizitza osoan Industrias Españolas S.A. enpresan lan egin zuenak ur-konta-gailu bakoitzak hamarkadetan zehar izan zuen garrantzia jakiteko gaitasuna du, edo bere gurasoen etxean, gaztea zenean, garbigailurik ez zegoela eta garbitzeko ohol bat behar izaten zela gogoratzen du. Gainera, istorio hauek gure industriaren eta ekonomiaren dinamismoa erakusten digute, manufakturatzen ziren produk-tuen bidez. Hemen pentsatu, diseinatu eta ekoiztiko objektuak dira; ez dago honakoa baino kilometro zero benetakoagorik. Argitalpen honetan jasotako objektu horien atzetik, lan ordu asko daude, hala nola Javier Cantera bezalako pertsonena. Bere ingurune industrialean gertatzen zenaren eta bere eguneroko bizitzan erabiltzen zuenaren lagin adierazgarri bat gorde behar zela jabetzeko gai-tasuna izan zuen. Angel Calvok, bere aldetik, objektu horiek Aranzadi Zientzia

Elkartearen funtsetan barneratzea ahalbidetu zuen, behar bezala katalogatu, zaharberritu eta zaintzeko. Ez hori bakarrik, Ganbara bilduma funtsak, gainera, bere nortasun osoa hartzen du argitalpen honen bidez. Defendatzen dugun ondare-kudeaketarako eredu sozialak auzo-erakundeen, erakunde publikoen, boluntario adinduen, unibertsitateko ikasleen eta Aranzadi Zientzia Elkartea honen lankidetzan biltzen ditu. Monografia hau gure ondare higigarri kulturalaren kudeaketan dagoen seriotasun horren emaitza da.

Donostian, 2023ko urrian.

Juantxo Agirre-Mauleon,

Aranzadi Zientzia Elkartea.

RESUMEN DEL CONTENIDO

La colección Ganbara es un conjunto de objetos domésticos que se podían encontrar en las casas de Altza entre los años 1950 y 1970. Es una colección formada por objetos de diversa índole: productos industriales, utensilios de cocina, juguetes, adornos, etc.

La creación y recopilación de esta colección fue una iniciativa de los miembros de Altzako Historia Mintegia. Durante casi 22 años, bajo el lema “colección Ganbara”, este grupo de voluntarios adquirió objetos, los catalogó y los divulgó mediante exposiciones o artículos en su página web y revista Estibaus.

Aunque muchos de los objetos fueron comprados (en tiendas de segunda mano, ferias, chatarrerías, etc.), la mayor parte de artículos se consiguieron gracias a las donaciones de particulares. Los objetos se incluían en la colección en función de la voluntad de los donantes.

En el año 2022, tras varios intentos de buscar un futuro para esta colección, los miembros de Altzako Historia Mintegia toman la decisión de donar a la Sociedad de Ciencias Aranzadi los objetos que conforman la colección Ganbara. Cuando la colección llegó a Aranzadi, el número de objetos era de 570, una colección realmente considerable y de gran interés etnográfico.

Ahora, con la colección en manos de Aranzadi, ambas entidades se unen para publicar este libro, con el objetivo de realizar una biografía de la colección Ganbara, así como publicar y dar a conocer parte del catálogo de piezas que conforman la colección.

Por ello, los objetos que se muestran en esta publicación no son los únicos que se utilizaban en la década de los 60, ni los únicos que conforman la colección Ganbara, pero transmiten la esencia y los cambios de la sociedad de entonces, tal y como lo hace la propia colección.

En el libro, se han agrupado los objetos en los siguientes apartados a los que hemos llamado: Cocina y utensilios de cocina, Alimentación, Limpieza del



domicilio, Confort, Higiene y Salud, Dispositivos audiovisuales, Instalaciones domésticas: electricidad, fontanería y cerrajería, Trabajar en casa y fuera de casa, Juegos y juguetes, Material didáctico, Religión y creencias y Decoración doméstica.

Este libro invita a hacer un viaje a una casa de Altza en los años 60
¡Acompáñanos!



Día de la entrega de la colección Ganbara a Aranzadi; de izquierda a derecha, Suberri Matelo, Jon Serrano y Maite Errarte. AUTOR: ÁNGEL CALVO





I.

GANBARA BILDUMA





SARRERA

Ganbara bilduma jatorri industrialeko objektuak barne hartzen dituen objektu sorta da. Bilduma honetan Altzako etxeetan 1950 eta 1970 urteen bitartean aurki zitezkeen mota askotariko objektuak daude: industria produktuak, sukaldeko tresnak, altzariak, jostailuak, apaingarriak eta abar. Altzako Historia Mintegiaren ekimena izan zen bilduma hau sortzea eta biltzea. Ia 22 urtez, “Ganbara bilduma”-ren lelopean, objektuak eskuratu, katalogatu, erakusketak osatu eta bestelako ekintzak antolatu ziren. Azken urteetan bildumak ezegonkortasun garaiak jasan zituen baliabide faltaren ondorioz; hori dela eta, 2022. urtean bilduma Aranzadi Zientzia Elkarteari dohaintzan emateko erabakia hartu zen.

Liburu honen helburua Ganbara bildumaren biografia bat eta haren edukia aurkeztea dira, Altzako Historia Mintegia bera, bildumaren hastapenak eta historia azaleratuz, besteak beste. Argitalpen honen bitartez, bildumaren garrantzia azpimarratu nahi izan dugu, objektu sorta honek Altzan izan duen eragina eta hura sortzeko egindako ahaleginak balioan jarritz.



Ganbara bildumaren logotipoa, Joaquín Garridok sortua.

ZER DA GANBARA BILDUMA?

Ganbara bilduma Altzako Historia Mintegiak osatutako material historiko eta etnografiko industrialaren barne hartzen duen objektu sorta da. Bildumak 1950 eta 1970 urteen bitartean, hau da, Altxa “Distrito Alza-Buenavista” izan zen garaian, bertako etxe batek gordeko lukeen kultura materialaren errepresentazio bat

izatea bilatzen du. Hori horrela, bilduma honetako objektuak Altzari garrantzia eman dioten tradizio urbanoaren eta pisu industrialaren isla dira.

1997. urtetik 2022. urtera arte Altzako Historia Mintegiaren proiektu bat izan da, eta 2022. urtean Aranzadi Zientzia Elkarteari materialak dohaintzan ematea erabaki zen, Altzako Historia Mintegiak bilduma hau mantentzeko izandako mugak zirela medio.

Bilduma helburu didaktiko batekin osatu zen, hau gizartean ezagutarazi eta auzotarrei objektu horiek erakusteko asmoz. Ahalik eta pertsona gehienengana iritsi nahi zen urteetan zehar burutu ziren erakusketa ezberdinekin, Altzako iragan industrialaren testuingurua plazaratzeko. Gainera, behin-behineko babesgune funtzioa ere bazuen, galtzen ari ziren objektu horiek guztiak jaso eta balioan jarri zirelako.

Ekimen honen bitartez Ganbara taldea osatzen zuten partaideek objektu horiek guztiak eskuratu, zaharberritu eta jaso egiten zituzten, iraganean eta etorkizunean izan dezaketen garrantzia aldarrikatuz. Bildumak barne hartzen duen material etnografikoa erosia edo dohaintza bidez eskuratutakoa da, eta egunerokotasunean erabiltzen ziren objektuak aurki daitezke: suarekin, lanarekin, aisialdiarekin, argiztapenarekin, eta bestelakoekin lotutakoak, besteak beste. Ganbara bilduma Aranzadi Zientzia Elkartera iristerako, objektu kopurua 570ekoa zen, benetan bilduma mardula.

Nahiz eta objektu asko erosiak diren (bigarren eskuko dendetan, azoketan, txatartegietan eta abar), bildumaren gehiengoa partikularren dohaintzei esker eskuratua da. Objektuak emaleen borondatearen arabera iristen ziren Ganbara taldera, ordena jakinik gabe, eta zenbaitetan, objektuak ez errepikatzeko, dohaintzei mugak jarri behar izan zizkieten. Hala eta guztiz ere, taldeak objektu berberaren aldaera ezberdinak ere jaso zituen, bere helburuetako bat objektuek denboran zehar izan duten bilakaera erakustea ere bazelako.

Objektuen katalogazio prozesua taldeak berak burutzen zuen, irizpide gisa izena, erreferentzia, deskribapena, neurria, jasotze-data, fabrikatze-urtea, kostea eta bestelako oharrak izanik. Gainera, gehigarri gisa, objektuen argazkiak eta anekdotak ere jasotzen zituzten taldeko kideek. Katalogoaren atal bat Altzako Historia Mintegiko elkartearen webgunean zintzilikatuta dago bildumaren izaera publikoa eta bere irisgarritasuna bermatze aldera.



Goian, Ganbara bilduma gaur egun, Aranzadi Zientzia Elkarteko sotoan jasota. EGILEA: S. MATELO

Ganbara bildumako zenbait objektu. EGILEA: M. ERRARTE

BILDUMAREN ATZEAN: ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA

Altzako Historia Mintegia 1986. urtean jaio zen, Casares Kultur Etxea zenaren baitan. Gaur egun egoitza kultur etxe honetan izaten jarraitzen du elkarteak. Taldearen lehen izena “Seminario de Estudios Altzataras / Altzatar Ikasketen Mintegia” izan zen. Halaber, jarraian izena aldatu eta “Comisión de antecedentes históricos de Altza”, edo, euskaraz, “Altzako Historia Mintegia” izena bereganatu zuten. Izan ere, 1993. urtean, taldeak elkarte autonomo bezala antolatzeko hautua egin zuen, AHM – Altzako Historia Mintegia izena hartuz. Elkartean egiten den lan guztia borondatezkoa da, eta ekimen guztiak helburu kulturalak dituzte, komunitate-ikuspegi batean oinarrituta. Gainera, beste zenbait elkarte eta erakundeekin lan egiten dute, kultur-lana partekatze aldera.

Altzako Historia Mintegia Altza historikoaren iraganeko eta egungo ikerketa eta ezagutza bultzatu nahi duen taldea da, jakintza horiek guztiak sustatzera bideratutakoa. Helburuetako bat, besteak beste, Altza herriarekin eta haren auzoekin identifikazio identitarioa sustatzea da, altzatarrek bere herriarekin identifikatzea bilatuz, Altzaren etorkizunaren eraikuntza bere gain har dezaten.

Horretarako, Altza herriko auzoekin lotutako ekimen kulturalak sortu eta aurrera eramaten ditu. Herritarren parte-hartzea ere sustatu nahi izan du elkarteak, mota askotariko ekintza eta ekimenak antolatuz. 1986tik gaur egun bitarte, natura, historia, genealogia, ondaregintza, eta, oro har, kulturari lotutako ekimenak antolatu ditu. Garrantzitsua da aipatzea elkarteak Altza Herria Espainiako Gerra Zibilaren amaieran Donostiara anexionatu aurretik hartzen zuen lurralde-eremuetan gauzatzen dituela bere ekimen eta zereginak, ondare historiko guzti hori egungo altzatarren esku jarritz.

Esan bezala, mota askotariko ekimenak antolatu dituzte urte guzti hauetan. Adibidez, naturarekin uztartutako proiektuak abiatu ditu elkarteak “Altzanatura” izeneko ekimenaren izenean, non Altzako intereseko gune naturalak, biodibertsitatea eta bestelakoak balioan jarri diren. Bestetik, dokumentazio zentro bat ere osatu du, Altzako Tokiko Bilduma, Altzarekin uztaturiko mota askotariko artxiboak (argazkiak, dokumentuak, mapak eta abar) barne hartzen dituena eta gehienak Internet bitartez eskuratu daitezkeenak (www.altza.info). Ibilaldi historikoak ere antolatu izan ditu auzo edota herriaren parte ziren eremuak ezagutzeko. Ikerketa-bekak ere eskaini izan ditu, eta baita auzoaren aberastasun



kulturalarekin lotutako kultur-aste, erakusketa eta kontzertuak ere. Taldeak mar-txan jarritako beste ekimenetako bat “Lekukoak” proiektua da, non altzatarren memoria historikoa berreskuratu, gorde eta ezagutarazi nahi den, testigantzak ikus-entzunezko euskarritan jasoz. Azkenik, liburu honen erdigunean dagoen Ganbara bildumaren ekimena dago. Jarduera horiek guztiak www.altzanet.eus webgunean daude eskuragarri.

GANBARA BILDUMAREN LEHEN PAUSUAK

Ganbara bildumaren hastapena 1997. urtean eman zen, Altzako Historia Mintegiaren eskutik. Bildumaren lehen inizatiba Altzako Historia Mintegiko kide zen Javier Canterarena izan zen. Cantera 1995an batu zen Altzako Historia Mintegira, bere amaren sustraia Altzan baitzeuden, eta laster hasi zen bertako ekimen eta proiektuetan lanean, besteak beste, dokumentazio historikoarekin lanean. Hala ere, bere gai kutuna industria zen, eta, zehazki, ondare industrialia, Niessen fabrikan lanean pasa zituen urte guztien ondorioz.

Taldea hain aktiboa eta anitza zela ikusita, Canterak 1997an Altzako Historia Mintegiko kideei industria museo bat sortzeko proposamena luzatu zien, auzoaren inguruan ekoiztutako produktuak bildu, katalogatu eta jasotzeko. Proposamen hori onartu eta objektuak eskuratzen hasi ziren. Alabaina, urteak aurrera egin ahala, etxeetarako sortu ziren eta etxeetan aurki zitezkeen material industrialetan jarri zen fokua. Objektuak eskuratzeko txartategi zein azoka anitzetara jo zuten, eta, gerora, baldintzetara egokitzen ziren objektuen dohaintzak jasotzen hasi ziren elkarteko kideak. Museoa Altzan kokatu nahi zen, auzotarrentzako eta ikastetxeentzako erakargarri kultural bat izate aldera.

Museoaren proiektuak zailtasun nabarmen bat izan zuen hasieratik: lokal edo espazio egoki bat eskuratzea erakusketa iraunkor bat kokatzeko. 2002an museo industrial baten parte izateko asmoarekin jasotako objektuak “Ganbara bilduma” gisa izendatu ziren eta izaera propioa hartu zuten. Gainera, materialak eskuratzeko irizpidea ere mugatu zen: Altzako etxeetan XX. mendean zehar aurki eta erabil zitezkeen, eta jatorri industrialia zuten objektuak osatuko zuten bilduma ordutik aurrera.

Bildumaren helburua beti izan da didaktikoa, bilduma ezagutarazi, eta ho-rrren bidez, iraganeko Altzako historia auzotarrei aurkezteko. Horrela, irizpide

berriekin testuinguru bat ezartzen zitzaion bildumari. Gainera, auzoetan eta etxeetan emandako eraldaketak ere islatzen zituen bildumak.

Javier Cantera bultzatzaile nagusienetariko bat izan arren, Ganbara bildumak borondatezko langile kementsu ugari izan zituen. Jon Serrano, adibidez, lehen momentutik lanean aritu zen Canterarekin batera, eta, gerora, gaian interesa zuten beste hainbeste elkarteko kide batu ziren; hala nola, Angel Almeida, Kepa Amondarain, Miguel Angel Padrones eta Lazaro Altuna. Horiek izan ziren, besteak beste, Ganbara taldeko partaide esanguratsuenak.

Baziren, gainera, Altzako Historia Mintegiko beste partaide batzuk Ganbaran lanean: Iñigo Landa, Pili Agirre, Maite Lopetegi, Maribel Manzano eta Antxon Alfaro, besteak beste. Hauek edukia sortu eta Altzako Historia Mintegiaren sare sozial eta webguneetan zintzilikatzen zuten. Azkenik, Joaquín Garridok, Ganbara bildumaren logotipoa marraztu zuen, gerora bildumaren aurpegia eta ikurra izango zena.

GANBARA PLAZARA

Esan bezala, Ganbara bildumaren helburu nagusia gizarteratzea zen; hots, bilduma bera erakutsi eta plazaratu nahi zen, auzoaren iraganaren parte zen epe historiko hori kontuan izanik. Hori dela eta, Altzako Historia Mintegiak hainbat ekimen eta ekintza antolatu zituen bilduma jendearengana iristeko. Horrela erakusketetan, prentsako artikuluetan edota elkartearen webguneko sarreretan lan handia egin zen.

Erakusketei dagokionez, Ganbara bildumarekin bost erakusketa ezberdin osatu ziren, 2004. urtetik 2012. urtera bitarte. Toki ezberdinetan egin ziren erakusketak, eta ikusle mota guztiei bideratutakoak izan ziren. Hauek oso harrera ona izan zuten; auzokideek interes handia erakutsi zuten objektuetan, eta gazteak ere gerturatu ziren.

Erakusketa hauek, gainera, gaika eta ildo jakin bat jarraituz egin ziren. Ez ziren objektu multzoen erakusketa sinpleak, atzetik diskurtso eta lan handia zegoen. Adibidez, 2012. urtean egindako erakusketak 50. hamarkadako egun bat nolakoa izango zen erakutsi nahi zuen, goiz-goizetik gauean oheratu arte etxean erabiltzen ziren objektuen segida batekin.



2004ko ekainean San Martzial elizpean antolatutako erakusketa.

ITURRIA: ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA



2007 egindako erakusketa bateko prestaketak. ITURRIA: ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA



Cantera eta Serrano Noticias de Gipuzkoa egunkariarentzat kokatuta. Iturria: <https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/donostia/2010/08/29/frotar-tabla-lavadora-4540732.html>

Ganbara bilduma hainbat aldiz agertu zen inguruko komunikabideetan: telebistan eta egunkarietan, besteak beste. Bilduma eta haren atzean zegoen lana erakusteko oso baliagarriak izan ziren berri hauek. Hala ere, Ganbara bildumaren difusiorako tresna baliagarriena elkartearen webgune ofiziala izan da beti, “Ganbara” izeneko atal bat eskaintzen zaiolako bildumari Altza Historia Mintegiko altzanet.eus webgunean. Bertan bildumaren katalogoaren zati bat kontsulta daiteke, eta pieza ezberdinen gaineko informazio zehatza. Gainera Estibaus buletinean (formatu fisiko zein digitalean argitaratzen dena) egindako erakusketa, hausnarketa edota beste zenbait ekintzei buruz hitz egin izan da.



GANBARA TEILATU BILA

Bilduma Altzako Historia Mintegiaren parte zen bitartean, mugimendu eta lekualdatze ugari izan zituen. Behar bezalako biltegi edo lokal baten falta oinarrizko arazo bat izan zen Ganbara bildumak Altzako Historia Mintegian izan zuen ibilbidean. Aipatu den bezala, elkarte herritar-talde bat da, inongo irabazi ekonomikorik bilatzen ez duena, eta guztiz borondatezkoa da bertan egindako lana. Hori dela eta, baliabide ekonomiko zein material mugatua du, diru-laguntzetan oinarritutakoa, besteak beste. Horren ondorioz, udalak utzitako Casares Kultur Etxeko gela batean egiten dute lan, baina, horretaz gain, elkarteak ez du inongo egoitza propiorik, eta erabilitako beste lokal edo gelak behin-behinekoak edota lagatutakoak izan dira. Honek arazo bat suposatu zuen Ganbara bildumarentzat: non jaso eta landu objektu horiek guztiak?

Espazio egoki baten bila, Donostiako Udalak lokal bat eskaini zien, baina elkarteak uko egin behar izan zuen espazioa eraberritu, mantendu eta erabiltzeko baliabiderik ez baitzuten. Hala eta guztiz ere, Donostiako Udalarik egindako eskakizuna mantendu zuten, lokala eta oinarrizko azpiegitura baten beharra aldarrikatuz. 2006an Udalak beste irtenbide bat proposatu zion: biltegi bat Larratxo Kultur Etxean. Erdizkako konponbide bat izan arren, lokal horri esker objektuak toki seguru batean egongo ziren. Hala ere, espazio hori beste hainbeste eragileekin partekatzen zuten, eta horrek asko mugatu zuen bildumarekin lan egitea. Espazioa objektuak jasotzeko bakarrik erabil zitekeenez, erakusketak egiteko beste espazio batzuk lortu behar izan zituzten. Gainera, Larratxo Kultur Etxetik objektuak sartu eta ateratzea oso zaila bihurtu zen. Urteak pasa ahala, egoera ezegonkorra bihurtu zen eta Altzako Historia Mintegiko kideak beste irtenbide batzuk aztertzen hasi ziren. Bide horretan Ganbarako taldekideak beste elkarte eta instituzioen atak jotzen hasi ziren, laguntza eske.

Bildumarentzat zaintza eta leku hobe baten bila, taldekideek inguruko ondarea kudeatzen duten bestelako instituzio handiagoetara jo zuten. Horrela, harremanetan jarri ziren San Telmo Museoarekin 2008an edota Gipuzkoako Foru Aldundiko Gordailuarekin 2014ean. Bilduma instituzio haietara pasatzeko proposamena luzatu zuten, bilduma osotasunean mantentzearen eta objektuen erabilgarritasuna bermatzeko baldintzekin. Hala ere, harremanek ez zuten fruiturik eman.



Errarte eta Matelo objektuak Larratxo Kultur Etxetik Aranzadiren Bidebietako Etnografia Laborategira lekualdatzen. ITURRIA: ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA

2022. urtean, Altzako Historia Mintegiko zein Aranzadi Zientzia Elkarteko bazkide komuna zen Angel Calvori esker, bi elkarteak harremanetan jarri ziren. Etnografia Sailak Aranzadi Zientziari material historiko eta zientifikoak dohaintzan emateko ildo berri bat jarri berri zuen martxan; horretarako esku-orri bat inprimatu zen dohaintzak egiteko prozesua azalduz. Esku-orria Angel Calvoren bidez Altzara iritsi zen eta bertako taldeak hainbat urteetako espazio eta kudeaketa buruhausteari konponbidea ikusi zion, Ganbarako materialak Aranzadiri dohaintzan emateko erabakia hartuz.

Horretarako, lehenik, Ganbara bilduma osatzen zuten objektuen jatorrizko jabeekin hitz egin eta euren baimena eskatu zen. Horrela, Aranzadiko Etnografia Saileko kideak diren Maite Errarte eta Suberri Matelok martxan jarri zuten dohaintza prozesua eta bilduma 2022ko udaran lekualdatu zen.



GANBARA BILDUMA, ALTZAREN IRAGANAREN ERAKUSGARRI

Gaur egun, Altza Donostiako ekialdean kokatuta dagoen auzo bat da, Pasaiarekin muga egiten duena. 100 metro inguruko altuera duen muino baten gainean kokatuta dago auzoaren alde zaharrena. Auzune urbano ugari barne hartzen ditu, besteak beste: Arriberri, Arrizar, Buenabista, Kasko, Eskalantegi, Roteta, Garbera, Jolastokieta, Larratxo, Los Boskos, Molinao, Santa Barbara, Oleta eta Herre-ra; eta baserri eremu zabal bat, hirigunea eta San Marko mendiaren artean, Lau Haizeta parkea barnean hartzen duela. Gutxi gorabehera, 20.450 biztanle ditu.

Alabaina, Altzak eraldaketa garrantzitsua jasan du XX. mendean zehar, batez ere, industrializazio prozesua eta Donostiarekin anexioa eman ondoren. Altzak herri burujabe gisa funtzionatu zuen 1940. urte arte, Donostiarekin anexioa egitea erabaki zen arte. Herri burujabe gisa, jada aipatutako hiri eta baserri guneetatik haratago, gaur egun Donostiako auzoak diren Bidebieta, Intxaurren-dondo eta Martuteneko (Sarrueta) lurrak ere bere barne hartzen zituen, baita Nafarroako muga ondoan dagoen Altzabaso mendialdea ere. Horrela, Altza herriak, Donostia, Pasaia, Erreterria eta Astigarraga herrieekin egiten zuen muga.

Esan bezala, Altzak bere izaera eta etorkizuna gutziz baldintzatu dituen eraldaketa ugari jaso ditu, horietako bi izanik, besteak beste, bertan emandako industrializazio prozesu anitzak eta Donostiaren auzoa bilakatzea. Hala ere, gaur egun auzoa den honek beste zenbait etapa historiko desberdin bizi izan ditu, eta horiek kontuan izan gabe ezinezkoa da gaur egungo Altza behatu, ulertu eta aztertzea.

Altzaren jarraipen historiko hori ulertzeko, bi fase desberdin banatu behar dira: batetik, Altza burujabearen etapa, eta bestetik, Donostiako auzo bilakatu zen etapa.

Altza, herri burujabe gisa

Historia Garaikidean, Altza bi denboraldietan burujabe izan da, 1821-1823 eta 1879-1940 urteen bitartean. Etapa honetan, Altza landa-eremua izatetik eremu-industrial bat izatera igaro zen. Altza udalerria izan zen denbora luze horretan, Donostiak saiakera bat baino gehiago egin zituen Altza herriarekin batzeko, eta urte solteetan (batez ere, XIX. eta XX. mendeetan) arrazoi desberdinak zirela

eta, lortu egin zuen. Hala eta guztiz ere, Altza eta altzatarrek euren independen-
tzia aldarrikatu eta eskuratzen bukatzen zuten, herritar identitate, mugimendu
eta sentimendu handia baitzegoen jendartean.

XIX. mendera arte, Altza landa-eremu handi eta burujabe bat izan zen. Herria nahiko sakabanatuta zegoen, baserri eta landa guneez osatuta. Herriaren biziraupena nekazaritza eta abeltzaintzan oinarritzen zen. Hala ere, XIX. mende erdialdean eta XX. mende hasiera bitartean, lehen industrializazio prozesuekin batera, gutxinaka herrian eraldaketa bat ematen hasi zen, lehen industria eta fabrikak bertan kokatzen hasi zirelako, are hiri inguru bat bilakatzeraino. Hori horrela izanda, XX. mende hasieran Altza lan egiten zuen langileriaren gehiengoa industria eta zerbitzu arloetan aritu zela badakigu.

Altzak, bere kokapenaren ondorioz, inguru ezin hobea zuen industrializazioaren garapenerako, Gipuzkoako hiriburu zen Donostiatik hurbil eta Pasaiaiko portutik oso gertu baitzegoen. Horren ondorioz, eraldaketa urbanistiko ugari pairatu zituen, bertan fabrika eta lantegi ugari kokatu baitzen. Horrekin batera, jarduera ekonomiko hiritar horrek Altzako lan aukera ikusi zuen beste leku eta eskualde batzuetako biztanleria erakarri zuen, horiek hartzeko etxebizitza eta bestelako eraikin berriak eraikitzen hasiz. Tradizio urbano horretan datza, hain zuzen ere, Altzaren historiaren garrantziak.

Altza herri izandako etapa honetan, esan daiteke nahiko jendarte anitza aurki zitekeela bertan. Izan ere, industriak eragindako biztanleriaren hazkuntza azkarrak eragina izan zuen herrian, eta herriak ez zuen gaitasunik hazkundeak eskatzen zituen azpiegitura eta zerbitzu berrien eskaera horiei aurre egiteko. Hala-ber, 1936an eztanda egin zuen Espainiako Gerra Zibilak eragin handia izan zuen herri honetan, kalte ekonomiko handiak eraginez. Ondorioz, 1939an, Donostia hiriak egindako anexo eskakizuna onartu zuen Altzako herriak, bere burujabetza eta autonomia galduz. Erabaki honek eragin handia izan zuen Altzako herri-tarrengan, eta anexoaren kontrako mugimendu ugari eman ziren.

Altza, Donostiako auzo gisa

Altzak herri burujabe izaera galtzean, Donostiaren menpe geratu zen. Gainera, 1940tik aurrera industrializazio garai berri bat ematen hasi zen bertan, modelo berri hau intentsiboagoa izanik. Industria guneez, handiagoak izanik, espazio mota zehatzagoak behar zituzten, eta industria horien guztien kontzentrazioa




ematen hasi zen fabrikak eraikitzeke egokiagoak ziren eremuetan. Horrela, Altzako industria guneak gehiago zabaltzen eta kontzentratzen hasi ziren.

Garai horretan ematen den bigarren industrializazio prozesu horren eraginez migrazio ugari jaso zuen auzuneak, eta biztanleri hazkunde horri erantzuteko, urbanizazio prozesu intentsiboago bat martxan jarri zen, lehen landa-eremuak ziren espazio horiek urbanizatuz.

Gaur egun Altza Donostiako auzune bat gehiago da, historikoki izan zituen lurra banaturik daudelarik. Bere baitan auzune ugari barne hartzen ditu, ia independenteak diruditenak, eta izaera oso propioa mantentzen dutenak. Altza, gaur egun, identitate eta nortasun handiko auzunea da.


Gaur egun Altza urbanizazio garapen proiektu ugariaren protagonista da, eta leku ugarietan aurki daitezke etxe berriak eraikiko diren berri ematen duten iragarpenak, edota fabrika edo etxe zaharren eraispenez informatzen duten kartelak. XX. mendean zehar emandako garapen urbano kaotikoa onbideratzeko proiektu urbanistikoak dira azken urteetan nagusi. Prozesu honen ondorioz, herriarentzat garrantzitsuak diren eraikin edo gune enblematikoak mantendu dira, baina herri identitatearen parte ziren beste asko galdu dira.


Auzoak nahiko itxura nahasia du egun, fabrikak, etxe zaharrak, edifizio altuak, baserriak eta bestelako egiturak aurki daitezke eta. Hala ere, eraikin mota ugariak izaera berezi bat ere ematen diote auzoari, bere historiaren isla bat baitira.





ITURRIA: ALBUM ALTZATARRA, 2000





II.

**GANBARA
BILDUMAREN
KATALOGOA**



KATALOGOARI BURUZ

Hamarkada batzuk pasa badira ere, XX. mende amaierako etxeetako estetika, objektuak, funtzionamendua eta bizimodua ere asko aldatu dira. Ondorengo orrietan Altzako etxe batean 60ko hamarkadan aurki zitezkeen objektuen aukeraketa bat ageri da. Objektu hauek ez dira, noski, garai haietan erabiltzen ziren bakarrak, ezta Ganbara bilduma osatzen duten guztiak ere (570 objektu), baina orduko gizartearen eta honen aldaketan inguruko ideia bat egiteko balio digute. Ganbara bildumak hori bera transmititzen du, Altzako etxe bateko bizimodua nolakoa zen, garaiko testigantzetatik abiatuta.

Sukaldea eta sukaldeko tresneria, Elikadura, Etxeko garbiketa, Konforta, Higienea eta osasuna, Ikus-entzunezko gailuak, Etxeko instalazioak: elektrizitatea, iturgintza eta sarrailagintza, Etxean eta etxetik kanpo lan egitea, Jolas eta jostailuak, Ikasmateriala, Erlijioa eta sinesmena, eta Etxeko apaingarriak deitu ditugun ataletan daude multzokatuta objektu hauek, irakurleak hobe ulertzeko eta interpretatzeko asmotan.

Egin dezagun bidaia Altzako 60ko hamarkadako etxe batera!





Herrerako RENFE azpiko pasabidea. 1960 inguruan. EGILEA: TOMAS PAULIS. ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA

SUKALDEA ETA SUKALDEKO TRESNERIA

XX. mende erdialdera arte, etxeetan egurrezko sukalde tradizionala zen nagusi. Kasu onenetan, gas bidezko sukaldeak ere aurki zitezkeen. Sukalde hauek otorduak bertan prestatzeko eta etxea berotzeko funtzioa zuten nagusiki, eta bere horretan, familia- eta komunitate-bizitzaren erdigune ziren.

Sukaldatzeko tresnak sinpleak ziren mende erdialderaino, baina aldi berean, eraginkorrek: burdinurtuzko zartaginak, buztinezko kazolak, altzairu herdoilgaitzezko eltzeak, burdina esmaltatuz eginiko ontziak, loza zurizko baxera edo kalitate apaleko metalezko mahai-tresnak.

Industriaren garapenari esker, berrikuntza ugari ikus ditzakegu 60ko hamarkadatik aurrera: sabairaino alikatatutako hormak orokortzen dira, lauzazko edo *Sintasol* delakoz eginiko zoruak, eta *Formika* estiloko edo zuriz margotutako egurrezko armairuak, sukaldeko tresna guztiak bertan gordetzeko. Janaria prestatzeko aluminiozko bateriak erabiltzen hasi ziren eta etxetresna elektrikoak eta eltze expressa orokortzen hasi ziren. Izotz-hozkailuak ordezkatu zituzten hozkailu elektrikoak aldaketa nabarmenak ekarri zituen elikadura-ohituretan. Elikagaiak gordetzeko ontziak plastikozkoak edo aluminiozkoak izaten hasi ziren.

Etxe guztietan bi baxera zeuden: egunerokoan erabiltzen zena eta ezkontza-opari gisa eman ohi zen jaiegunetakoa. 60ko hamarkadaren hasieran, *Durallex* markako beirazko baxera egunero erabiltzen hasi zen, Frantziatik inportatua, eta haren prezio baxuak eta erresistentziak arrakasta handia izan zuen denbora gutxian.

Irabiagailua, errotatxoa, lata-irekigailua edo zukugailua bezalako tresneria oso antzinakoa da, baina garai honetan tresna horiek berak diseinu berriekin agertzen dira. Diseinu industrial berriek eragingailu elektrikoaren, maneiatzeko erraztasunaren eta garbitzeko erraztasunaren aldeko apustua egin zuten. Dena den, tresna berrien zerrenda ugaritu egin zen: fideoak egiteko tresna elektrikoak, ogi-txigorgailuak edota jogurtak egiteko makina sortu eta zabaldu ziren.

Azken batean, industriari betiko tresnak nahiz asmakuntza berriak prezio onean diseinatzeko eta fabrikatzeko aukera ekarri zuen eta horrek asko erraztu zituen sukaldeko zereginak.



Arzak jatetxeko langileak: Paquita Arratibel (Juan Mari Arzaken Ama), M^a Cruz Percaz, Juanita Ceberio, Puri Prieto eta M^a Carmen Beguiristain. 1960 inguruan. ITURRIA: JUAN MARI ARZAK. ALTZA HISTORIA MINTEGIA

EGSA KATILUA

Txapazko katilu erresistentea, labean esmaltatua, kolore zurikoa eta granate koloreko ertzarekin. Enbutizio bidezko teknikaz egina eta ertzak biribilduta. Ontzi hau gosarirako egokia da. Markaren logotipoa margotuta dauka: "EGSA clase selecta". 1950eko hamarkada inguruan eginiko pieza da.



Esmaltería Guipuzcoana S.A. (EGSA)
 1925ean sortu zen Errenterian. Enpresa honek txapazko kazola eta eltze oso arinak fabrikatu zituen, sukaldeko hatu tradizionala osatzen zuten metalezko pieza astunak alde batera uztea eraginda. Klase aberatsagoek erabiltzen zituzten loza, portzelana edo zilar jokoan bertsio merkeago eta gogorragoa ziren txapa esmaltatuko objektu hauek. 1964an San Ignacio S.A.k xurgatu zuen enpresa.



Altzairu herdoilgaitzez eginiko
presio-eltzea, Majestic marka.

EMAILEA: JAIME ALBILLOS



Burdin esmaltatuan eginiko lapikoa,
10l-ko edukiera. c. 1940



Fideoak egiteko makina, Cholín Donostia
marka. c. 1940



Beira marroizko plater sakona,
Durelex marka.



Limona zukugailua, FAEDSA-desirée
marka, Bartzelona. c. 1960



Jogurta egiteko makina, Magefesa marka. c. 1970

ELIKADURA

1950eko hamarkadan errazionamendu kartillak amaitu ziren Gipuzkoan. Honi esker, biztanle gehienek elikadura aldatu eta hobetu egin zen 1960tik aurrera. Altzatarren elikaduraren ezaugarri nagusia sinpletasuna eta tokiko osagai freskoen erabilera zen. Garai hartan sukaldaritza batez ere etxekoa zen eta belaunaldiz belaunaldi transmititutako errezetetan oinarritzen zen. Otorduek alderdi sozial eta familiar garrantzitsua zuten: atsedenaaldi hauek familia mahaiaren inguruan biltzeko eta kontakizun eta berriak partekatzeke erabiltzen ziren.

Familia xumeenek zerealak, patata eta lekaleak zituzten beren dietaren oinarri gisa; aberatsagoak ziren, arrainaz, haragiaz, arrautzez, frutaz eta barazkiez gehiagotan gozatu zezaketen. Industrialki prestatutako elikagaien, atzerriko produktuen eta izoztuen gorakada ematen hasi zen orduan eta jogurta edota york-urdaiazpikoa bezalako produktuak zabaldu ziren. Publizitateak ere garrantziazko lekua hartu zuen elikagai sektorean.

Ardoa, sagardoa, garagardoa, gaseosa eta seltz-ura ziren edari arruntenak. Etxean hartzen ziren, baita herri eta hirietan ugaritzen hasi ziren tabernatan ere. Ardoa ontziratu gabe saltzen zen gehienetan, eta gaseosa eta seltz-ura tokian tokiko enpresetan egin eta botilatzen zen. Ordurako, tokiko markekin lehiatzen ziren freskagarri amerikarrak ere apurka merkatuan espazio bat lortzen joan ziren.





Rosa Mari Fernández Crespo, Marrutxipiko bizilaguna, janari-dendan. 1958 inguruan. ITURRIA: MARRUTXIPI ELKARTEA. ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA



Koñak upela, 5088 Garvey
Jerez marka.
EMAILEA: ESTRELLA DE LA CRUZ.



EL LEÓN GARAGARDO BOTILA

Beira marroizko botila, litrokoa, metalezko uztaien bidez ixten den tapoi zeramikoarekin. 1960 ingurukoa. Benedikt Kutz garagardogile maisua 1867an iritsi zen Donostiara. Kutztarrak jatorriz Alemaniakoak ziren, Ulm hirikoak. Benedikt garagardogilea izan zen Ulmen jada, gero Estrasburgon eta geroago Parisen. 1867an Estatu Batuetara iristea zen bere asmoa, baina Juana Ygarzábal andoaindarrarekin maitemindu zen eta Gipuzkoan finkatu ziren. 1870ean bere anaia Klaus (Luis) Donostiara iritsi zen; Ygarzábal ahizpetako batekin ezkondu zen baita ere, Josefa Agustinarekin. Bi anaiek 1872an Strasburgoko garagardotegi ospetsua eta Ategorrieta auzoko izotz-fabrika sortu zituzten. 1890ean El León lantegia eraiki zuten Donostiako Antiguu auzoan. Lehoia Kutz familiaren ikurra da, eta horregatik izan zen markaren enblema nagusia. Geroago garagardo honek Keler izena hartuko du, eta fabrika lekuz zein eskuz aldatuko da.



Elikagaiak xerratu eta birrintzeko makina, Minna marka.



Sifoi botila, Carbónica Guipuzcoana S. A. Donostia marka. c. 1970.



Mosto botila, Palacio marca.

ETXEKO GARBIKETA

Etxea garbitzeko lanak zeregin neketsuak ziren orokorrean eta egunero egiten ziren. Lanak eskuz egiten ziren, eta gainera, etxean eginiko produktuak erabiltzea zen ohikoena. Lixiba bezalako produktu industrialetatik haratago, xaboi-pastilla, ozpina eta sodio bikarbonatoa ziren garbiketarako baliabide arruntenak. Hain zuzen ere, oraindik 60ko hamarkadan etxe askotan olio erabiliarekin eta sosarekin eginiko xaboa egiten jarraitzen zen.

Altzako etxe askok baldosazko zoruak zituzten eremu komunetan, eta egurrezkoak geletan. Apurka *Terrazo* izenarekin orokortu ziren zoruak ere areagotu ziren etxebizitza eta portaletan. Zoruak garbitu ahal izateko, erratza pasatu behar zen lehenik. Zurezko zoruak, baldosazkoak bezala, fregatu egiten ziren, baina gero argizari zaharra kendu eta alanbrezko espartzu batekin igurzten ziren. Azkenik, argizaria ematen zitzaien berriro, horretarako prestatuta zegoen makila baten bidez. Etxe batzuetan makila hori argizari-makina elektrikoarekin ordezkatu zen. Berehala agertu zen baita ere lurzoruetarako berniza, *Pinky* ere esaten zaiona.

Altzariak, oro har zurezkoak izaten zirenak, argizariarekin edo liho-olioarekin garbitu eta leuntzen ziren, haien itxura mantendu eta egurra babesteko.


Halaber, etxe askok tximiniak eta berogailuak zituzten. Garrantzitsua zen tximinia garbi eta kedarrik gabe edukitzea, funtzionamendu segurua eta eraginkorra bermatzeko.

Etxe horietako batzuetan saguen eta intsektuen izurriteak egoten ziren, eta horiei aurre egiteko hainbat tresna eta sistema erabiltzen ziren, gaur egun asko aldatu ez direnak, oraindik ere horietako batzuk erabiltzen dira eta.

Arropa garbitzeko garbigailu automatikoak 1960ko hamarkadan hasi ziren nagusitzen, eta, beraz, ordura arte arropa eskuz garbitzen zen herriko garbitokian edo etxeko harraskan. Xaboa barran edo hautsetan erabiltzen zen, edo aipatu dugun etxean eginiko koipezkoa. Arropa arraiduradun taula baten gainean igurzten zen, orbanak kentzeko. Arropa zuritzeko lixiba egiten zen; hau da, arropa garbitzeko urari errautsa bota eta, ondoren, izara baten bidez iragazi egiten zen. Halaber, anila edota *Azulete* izeneko produktua ere gehitzen zitzaion ur honi arropa zuritzeko. Era berean, merkatuan hainbat asmakuntza agertu ziren, hala nola huts-garbigailua, zeinak behin arropa xaboituta balde baten barruan irabiatu egiten zuen mugimendu bizkorren bidez.



Denbora pasa ahala, ordea, garbiketa-produktu komertzialek eta etxetres-
na elektrikoak eskuratzeak nabarmen erraztu eta modernizatu zituen etxeetako
garbiketa-lanak.



Otsein markako
garbigailu baten
argibideak. 60ko
hamarkada.

ITURRIA: ARANZADI
ZIENTZIA ELKARTEKO
ARTXIBO OROKORRA



Plantxa elektrikoa.
EMAILEA: ANGEL CALVO



Egurrezko
sagu-tranpa.



Ezkoztagailu elektrikoa, Electrolux marka. c. 1960.
EMAILEA: JOSE MARIA CENDOYA



Garbigailu elektrikoa, Otsein marka. c.1950.



Arropa garbitzeko ohola. c. 1960. EMAILEA: JON SERRANO

EL CID LIXIBA BOTILA

Beirazko botila berde sendoa, El Cid markakoa, lixiba-botila zaharren forma klasikoarekin. 1950eko hamarkada ingurukoa da. Pieza honek duen ezaugarri bereizgarriena haren etiketa da, irudi bitxiak baititu: Cid zalduna zaldi gainean; zerbitzari bat taberna bateko mahaia garbitzen eta emakume bat ibai batean harrikoa eginez (Arlanzón ibaian seguruenik, atzealdean Burgosko katedralaren dorreak ikusten baitira). “La lejía El Cid es un desinfectante y desodorante activo. Limpia y desengrasa sin igual” bezalako esloganak ageri ditu. Hau bezalakoak, ontzi berrerabilgarriak ziren; behin hustuta beste produkturen batekin betetzeko erabiltzen baitziren.



KONFORTA

Konfortaren kontzeptua oso apurka sartu zen 60ko hamarkadan orokortu ziren langileen pisu eta etxeetan. Gure inguru honetako klimagatik etxeko berotasuna zen konforterako lehen baldintza. Horretarako metodo erabiliena sukaldeko sua izan da tradizionalki baserrietan. Lehenik, su baxuarekin, eta, ondoren, sukalde ekonomiko edo txaparekin. Azken honek ur beroa sortzeko depositu txikia inkorporatu zuen gainera.

Langile etxebizitza eta pisuetan ere ekonomiak edo txapak ikusten ditugu hasieratik. Berarekin batera aldatu ziren, gainera, eltzeen formak eta materialak, edota egurraren erabilera bera, txikiago moztu beharra zegoelako tximinian sartzeko.

Egurra erretzen duen tximinia txikiak ere erabiltzen ziren eta honakoak egongelan egoten ziren orokorrean; edonola, etxe handienek bat baino gehiago izaten zituzten.

Aurreko guztiarekin batera, burdinazko berogailuak ere asko erabiltzen ziren. Bazen beste asmakizun xumeago bat ere: su-ontzia. Su-ontzia txingarrez betetzen den metalezko ontzi bat da eta mahaiaren azpian kokatzen zen. Xumeenak kobrez, brontzez edo burdinazko xaflaz egiten ziren. Etxeko kideak mahaiaren inguruan esertzen ziren eta hankak eta gorputzaren zati bat berotzen zituzten hala, baina bizkarra epeltzeko modurik ez zen izaten inondik inora ere.

Neguan, asmakizun horiek guztiak gorabehera, etxeak hotzak izaten jarraitzen zuten, eta oheratzeko orduan, oheak izoztuta egoten ziren. Urteen poderioz, diseinu industrialeko berogailu mota desberdinak sortu ziren, labean berotu eta izara artean sartzen zen adreilu trinkoa albo batera uzten hasiz.

Hotzari aurre egiteko, etxe aberatsenetan ikatz-galdara eta ur-erradiadore bidezko berokuntza zentrala zegoen. Horretarako, ordea, instalazioaren funtzionamenduaz arduratuko ziratekeen langileak behar ziren. Merkeagoa zen hiri-gas erradiadorea, baina gas-fabrika zegoen hirietan baino ezin zen instalatu. Etxe horietako batzuetan, elektrizitatea banatu aurretik ere, argiak gasaren bidezkoak ziren, baina espazio itxietan gasa erretzeak argitasuna emateaz eta berotzeaz gain giroa nahastea eragiten zuen.

Beranduago, elektrizitatea iritsi zen eta erresistentziak berotuta edo izpi infragorrien erradiazio bidez funtzionatzen zuten mota guztietako berogailu elektrikoak sortu ziren.



SuperSer markako estufa baten argibideak. 60ko hamarkada. ITURRIA: ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO ARTXIBO OROKORRA



Eguzki-berogailua, Calor marka.



Mahai gaineko haizagailua, Taifun marka. c. 1970



Berogailu elektrikoa, AEG marka.
c. 1940. ÉMAILLE: ESTRELLI DE LA CRUZ



Berogailu elektrikoa,
Calor marka. c. 1940.
EMAILEA: ANGEL CALVO



URBEROAREN POLTSA

Gomazko poltsa klasikoa, bertan ur beroa sartu eta ohea berotzeko edo gainean jartzeko erabilitakoa. Poltsak inbutu bat du betetzea errazteko. Beste aldean zulo bat du zintzilikatua izateko. Metalezko tapoi hariduna du. Felpazko zorro batekin forratuta dago, urak sortutako beroa arintzeko eta ukitze hobea izateko.



Berogailu modelo honek hamarkada asko daramatza aldatu gabe. Hau asmatu aurretik, objektu solidoak erabiltzen ziren beroa lortzeko; hala nola, txingar bidezko su-ontziak, labean berotutako adreilu trinkoak, buztinezko botilak, kristalezkoak, metalezkoak eta abar. Helburu terapeutikoarekin ere erabiltzen zen, kolpeen eta gaixotasunen sintomak arintzeko, baita ur hotza sartzeko ere. Gaur egun, berokuntza gisa manta elektrikoak ordezkatu du.

HIGIENEA ETA OSASUNA


XX. mendearen erdialdean, oraindik ere, urik gabeko etxe asko zeuden. Gainera, uda lehorrenetan normala zen banaketa-sareko ur-mozketak egotea. Janaria prestatzeko eta garbitzeko erabiltzen zen ura, bai iturritik ekarritakoa, bai etxean jasotakoa, batez ere baldeetan eta burdin esmaltatuko pitxer zurietan gordetzen zen.

Hala ere, egoera sozioekonomikoak aldatu heinean, etxe berrienetan bainugela ezartzeak higiene pertsonala nabarmen hobetu zuen eta etxetresna elektrikoak esparru honetara ere iristea ahalbiderratu zuen. Esaterako, bizarra mozteko prozesuak garapen handi bat jasan zuen: etengabe zorroztea eskatzen zuen eta ebakiak eragiten zituen labana erabiltzetik, bizarra mozteko makinaren berrikuntza etorri zen. Honakoak erabili eta botatzeko ziren orriekin kargatzen ziren. Edonola ere, benetako iraultza bizarra mozteko makina elektrikoaren merkaturatzearekin etorri zen.

Ilearen zainketaren esparruan, kizkurgailu eta erruloez haratago, beste berrikuntza bat etorri zen: ile-lehorgailu elektrikoa, pistola baten antzeko diseinua zuena, ilearen orrazketa erraztea eta merkeagotzea lortuz.

Edertasunaren alorrean, kosmetikoak orokortuz joan ziren eta azal beltzarana izatearen modarekin beltzarantzeko produktuak sortu ziren: eguzki-lanpara dugu horren adibide.

Osasun-eremuan, betiko baliabideak erabiltzen jarraitu zen: aiuta, aspirinak, ukenduak eta abar. Hala ere, laborategi handien sendagai kimikoek tokiko farmazialariek egindako formula zaharrak ordezkatu zituzten pixkanaka.





Yolanda ile-apaindegia Aldakoenean (Egia), 1975. EGILEA: TOMAS PAULIS. ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA



Burdin esmaltatuko pixontzia.

EL ELEFANTE KOMUNeko PAPERa

Inguru honetako komuneko paper marka ezagunena zen ziurrenik. Zuritu gabeko papera zen, marroia, kapa bakarrekoa, eta zelofan horian bilduta zegoen.

Egitan, paper honen markaren izena ez zen El Elefante; izena kontsumitzaileen artean nagusitu zen, bilgarrian animalia hori agertzen zelako.

Marka hori 50eko hamarkadan agertu zen Espainiar Estatuan, eta oraindik ere askoren memorian mantentzen da, garbitu baino azala urratu egiten zuelako. Paper hau Erretereriako La Papelera Española enpresan egin izan zen urte askoan.





Lanpara ultramorea, Philips marka, 3202 modeloa. c. 1970



Bizarra mozteko xaflak,
Venus marka. c. 1950



Ile-lehorgailu elektrikoa, Dauphin Odag marka. c. 1980. EMAILEA: JOAQUIN GARRIDO

IKUS-ENTZUNEZKO GAILUAK

XX. mendeko 40ko eta 50eko hamarkadetan orokortu zen irratia. Normalean, etxeetan zegoen mota honetako aparailu bakarra zen honakoa. Balbula elektroken bidez funtzionatzen zuten irrati-hargailuei esker, informazioa, albisteak, lehiaketak, nahiz irrati-eleberriri iristen ziren etxeetara. Sare-elektrikoaren baldintza prekarioak zirela eta, entzuleek voltmetro bezala ezagutzen den tentsio-jagailu batera konektatu behar izaten zituzten irratia.

50eko hamarkadaren amaieran eta 60ko hamarkadaren hasieran, industria elektronikoak merkatua irauli zuen: transistore deiturikoak agertu ziren. Pilekin funtzionatzen zuten irrati-aparatu txiki eramangarriak ziren. Urte horietan pop musikaren booma ere gertatu zen. Musika biniloetan komertzializatzen zen eta horrekin batera disko-jogailuak edo *pic-up*ak agertu ziren, horiek ere eramangarriak izan zitezkeen. Honi esker, gazteen joeretan iraultza bat gertatu zen: modako musika edonora eraman zezaketen, eta guateke izenez ezagutzen ziren festak antolatzen zituzten.

Garapen teknologikoak jada pil-pilean zeudenean, *Philips* enpresak musika-grabagailu eta erreproduzitzaile bat merkaturatu zuen: magnetofoniko izena hartu zuen aparatu honek eta zinta magnetikoko kartutxo edo kasete batzuekin erabiltzen zen. Gainera, txikia eta trinkoa zen, eta ahotsa grabatu eta musika kopiauzten zuenez (zeinak arazo baten hasiera suposatu zuen), izugarritzko fama hartu zuen.

Garai honetan telebista ere orokortu zen, zuri-beltzean. Kate bakarra ikus zitekeen hasiera batean, eguerdian eta arratsalde-gauean, egunean zortzi orduko ematea izanik. Aipatu irrati-aparatuak funtzionamenduan jartzeko voltmetroa erabiltzen zen bezala, telebistek ere tresna osagarri bat behar zuten: tentsio-egonkortzailea. Koloretako telebista 80ko hamarkadan zabaldu zen, eta honekin, zinta magnetiko batzuen bidez irudiak grabatu eta erreproduzitzen zituzten aparailuak ere merkaturatzen hasi ziren.

Argazkigintzaren munduan, etxeetan oso kamera gutxi zeudela esatekoa da. Ugarienak *Brownie* motako sinpleenak ziren, zuri-beltzeko argazkiak egiten zituztenak. Negatibo konbentzionalen kamerak ere etorri ziren geroago, lehenik argazkiak zuri-beltzean eta ondoren koloreetan egiten zituztenak, 12, 24 eta 36 argazkiko karreteetan. 60ko hamarkadan, berriz, kamera modu errazagoan kargatu ahal izatea ekarri zuen kartutxo edo pack formatua agertu zen.



La gama de aparatos
que siempre será de
actualidad!

¡Son PHILIPS!
Ahí está la diferencia

Philips markako
soinu-gailuen
iragarkia. 1958.
ITURRIA: ARANZADI ZIENTZIA
ELKARTEKO ARTXIBO
OROKORRA

Telefonoari dagokionez, 50eko hamarkadakoek disko birakari bat zerama-ten zenbakiak markatzeko, eta bakelita beltzez eginak zeuden normalean. Norbaitek deitzen zuenean txirrin berezi bat entzuten zen, denok ezagutzen dugun hori. Telefonoa, gehienetan, etxeetako korridoretan edo egongelan kokatzen zen, eta hori dela eta ohikoa zen konbertsazio pribatuak edukitzeko telefonoaren kablea tenkatuz gela baten barnera sartu beharra.

Esan beharrik ez dago ikus-entzunezko teknologiaren trantsizio garrantzitsu bat eman zela garai honetan: familiak entretenimendurako eta komunikaziorako gailu gero eta modernoagoak lortzen hasi ziren, eguneroko bizitza guztiz aldaraziz. Edonola ere, etxe guztietan ez zegoen gailu horiek lortzeko baliabiderik.



Mahai gaineko telefonoa.



Disko-jogailua, Teppaz Lyon marka, Octave modeloa. c. 1960.

Irrati transistorea, Philips marka. c. 1950.





Argazki-kamera bere babes zorroarekin, Agfa marka, ISO-PAK C modeloa. c. 1970. EMAILEA: JOAQUIN GARRIDO

PHILIPS TELEBISTA

Zuri-beltzeko telebista.

1891n, Gerard eta Frederik

Philipsek Philipsen

lehen fabrika ireki zuten

Herbehereetako Eindhoven

hirian, eta hasierako

jarduera lanpara gorien

ekoizpena zen. Urteetan

berrikuntzak egin ondoren,

1949an, lehen telebistak

merkatuatu zituen. 1969an, Philips koloretako lehen telebista

ekoizten hasi zen. Fabrikak telebistak eboluzionatzen eta berritzen

jarraitu zuen, 1990. urtean teletestua agertuz (hogei urte lehenago

asmatu zuen marka horrek).

Mota honetako telebistak etxe askotan egon dira, lehenik

zuri-beltzeko irudiekin, eta gero koloretakoekin. Bere estetika garai

bakoitzera egokitzen zen, zuraren imitaziozko alboekin edo ertz

nikelatuekin.



EMAILEA: JAVIER CANTERA

ETXEKO INSTALAZIOAK: ELEKTRIZITATEA, ITURGINTZA ETA SARRAILAGINTZA

60ko hamarkadatik aurrera etxeak hobekuntza eta instalakuntza berriak jasan zituzten. Pisuetan gero eta erosotasun gehiago aurkitzen ditugu, eguneroko zereginak eta bizi kalitatea hobetzen laguntzen zutenak. Mota honetako instalakuntzak etxe batek modu eraginkor eta erosoan funtzionatzeko funtsezko osagaiak dira, baina askotan oharkabean pasatzen dira gaur egun.

XX. mendeko 40ko eta 50eko hamarkadetan, etxeetako atepak egur trinkoak izaten ziren, eta krisketa atxikita izaten zuten. Eskulekuak letoizkoak eta portzelanazkoak ziren etxe gehienetan, eta forma obalatuak eta ukonduak izaten zituzten. Material elektrikoarekin gertatu bezala, material horiek geroago bakeskortasun egindako produktuekin ordezkatu ziren. Kanpoko atepak, giltza handien bitartez irekitzen ziren mekanika sinpleko sarrailekin hornitzen ziren. Denborarekin, giltza txikiekin irekitzen ziren sarraila sofistikuatuak sortu ziren, bortxatzeko zailagoak zirenak.


Ura etxeetara iritsi zenean honekin erlazionaturiko instalazio eta gailu berriak sartu ziren, hala nola gasarekin funtzionatzen zuten ur-berogailuak. Ur-instalazioak argi eta garbi bereizten zituen ur beroa eta ur hotza, bakoitzarentzako txorrota bana ezarriz. Dutzatzea baino, bainua hartzea orokortuago zegoen, batzuetan jendea balde handi batean garbitzen zelarik. Harrasketan oso diseinu klasikoa erabiltzen zen: letoizko txorrota, lazo itxurako helduleku batekin. Mekanismoa hain zen erreza, ezen txorrota hondatzen zenean pieza etxekoek bertakoek aldatzen baitzuten.

Uraren erabilerak ur-kontagailuen beharra ekarri zuen. Ur-kontagailuek kontsumitutako ura zenbatzeko balio zuten eta bere diseinua guztiz funtzionala bazen ere, estetika zaindua zuten garai hartan. Letoi urtuz osatzen ziren, zuriz margotutako esferarekin, orratz ugariarekin eta estalki batekin.

Aurrerakuntza elektrikoek ere hobekuntza eta mota guztietako gailuak ekarri zituzten etxeetara.



EL CALENTADOR INTERNACIONAL



*a
gas
butano*

DANIEL'S


*Manantial
de agua caliente*

www.daniel's.com

Daniel's markako
soinu-gailuen iragarkia.
60ko hamarkada. ITURRIA:
ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO
ARTXIBO OROKORRA



Bakelita-etengailua,
Niessen marka. c. 1960.




Autotransformadorea,
Manumag marka.



Letoizko txorrota. c. 1940

TAJO UR-KONTAGAILUA

Ur-kontagailu klasikoa, letoiz egina, xafla esmaltatuko esfera zuriarekin eta kristal batez estalia. Estalkian Industrias Españolas S.A.-TAJO marka eta modelo agertzen dira.



Hainbat hamarkadatan etxe guztietan egon zen kontagailu-eredu bat da, ia aldaketarik izan gabe. Hasierako Delaunet S.A. eta Elorriaga y Cía enpresak Altzako udalerrria izan zen Mirakruz gainean kokatu ziren, eta, ondoren, Industrias Españolas S.A. enpresa bihurtu ziren. Enpresa horrek 70eko hamarkadara arte bere jarduera toki berean mantendu zuen, eta, ondoren, Errenteriara mugitu zen.

ETXEAN ETA ETXETIK KANPO LAN EGITEA

Mende hasieratik, etxetik kanpo lan egitea orokorturik zegoen: fabriketan, komertzioetan edota etxez etxe. Horretarako, langileek lana etxetik kanpo egiteko behar adina objektu sortzen dira; honen adibide da jornalariak fabrikara janaria eramateko zakote-ontzia, edo medikuak etxez etxe ibiltzeko *cabas* maletatxoak.

Hala eta guztiz ere, garai honetan lanbide ugari etxeetan garatzen ziren. Hauen erakusle ditugu jostunak, mediku eta praktikanteak, irakasleak eta abar. Lan hauek, ogibide nagusi gisa edo diru-sarrera gehigarri bat lortzeko egiten ziren. Aipatu beharrik ez dago baserritarren lana bizilekuan bertan garatutako ogibideen adibide garbia dela.

Kontuan hartu behar da etxearen baitan soldata gabeko hainbat eta hainbat zeregin egoten zirela: batek baratze txiki bat izan zezakeen, beste batek sagardoa egiten zuen, askok josteko makinak zituzten jantziak konpontzeko eta abar.

Industriak etengabe sortu zituen diseinu eta asmakuntza berriei nahiz langileen baldintzak hobetzeko sorturiko mugimendu sozialista eta sindikalek, lan-munduan aurrerapena suposatuz, langileen lan-egoera eta segurtasuna hobetuz.





Herrera auzoa, trenbidetik ikusita. Bertan, bizilagunen baratze partikularrak, Jose Casaresen aroztegi mekanikoa, Paquito-Enea etxea eta Ibarbia etxea ikus daitezke. Argazkia Altzako bizilagunek egunero egiten zituzten lanen konbinazioaren erakusgarri da. 1970. ITURRIA: FELIPE GARIN. ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA.



Bordatzeko euskarria. EMAILEA: JAVIER CANTERA



Hiru errazientzako edukiera duen burdina
esmaltatuko zakote-ontzia. c. 1930



Josteko-makina,
Alfa marka. c. 1950.
EMAILEA: JOAQUIN GARRIDO



KALKULAGAILU MEKANIKOA

Kalkulagailu mekanikoa, bakelitzaz osatua, erregistrarako paper-zintarekin eta eragiteko biraderarekin. 0,1 zentimotik, 999.999,99 pezeta arteko kalkuluak egiteko gaitasuna du. Komertzioetan aurrekontuak egiteko edota kalkuluak osatzeko erabiltzen zen, eta egindako kalkuluak paper batean idatzita uzten zituen, zeina garai hartan honakoak gordetzeko eta berrikusteko sistema bakarra zen.



Zehazki, garaiko Donostiako Calvo Sotelo zumardian (zeina orain Boulevard kalea den) kokatuta zegoen Enrique Perez Egea jostundegi eta alkandora-dendakoa da. Victor Adding Machine Company, Chicago, USA markakoa da eta gutxi gorabehera 1940ko hamarkadan eginikoa.

EMAILEA: JOSE LUIS PEREZ EGEA



Larruzko cabas mediku-maleta.

JOLAS ETA JOSTAILUAK

XX. mendearen erdialdean, haur-jolasak egungo joko elektroniko eta digitalen oso bestelakoak ziren. Aire-librean jolastea zen ohikoena, taldean eta jostailu askorik gabe: panpina bat, egurrezko kamioi bat, latorrizko kotxe txiki bat, pistoizko pistola bat edota tren txiki bat oso objektu preziatuak ziren.

Etxe giroan, mahai-jolasak indarra hartuz joan ziren pixkanaka, gaur egun klasikotzat jotzen ditugun jokoak nagusituz: loteria edo kina jokoa (egun bingo jokoa bezala ezagutzen dena), partxisaren edo antzararen jokoa, magia jolasak, hiru marran, etab.

Intelektualenak zirenak damekin edo xakean ere aritzen ziren. Zorionekoenek, berriz, haur-zinema zuten: biradera bati eraginda pertsonaiak irudikatzen zituen proiektagailu mutua.

Halaber, oso arrunta zen generoari begira sorturiko jostailuak egotea; esate baterako, neskantilentzako panpinak, sukaldetxo eta ontziak, josteko makinak...

1960ko hamarkada iritsita, zurezko, kartoizko eta txapazko jostailuen booma iritsi zen. Industriak fabrikazio-teknologia eraldatu zuenez, guztiz berritzaileak ziren jostailuak merkaturatzen hasi ziren; honakoak erresistenteagoak eta originalagoak izateaz gain, prezio merkeagoak izaten zituzten.

1970eko hamarkadan, plastikoz egindako panpina txiki batzuk jostailuen merkatua irauli zuten: *Playmobilak* ziren honakoak. Pertsonaia anitzak irudikatzen zituzten panpina koloretsuak ziren, artikulatuak eta pieza eta osagarri truka-garriak zituztenak. Arrakasta ikusita, panpina hauen antzeko produktuak merkaturatzen zituzten enpresa ugari agertu ziren.


Hitz batez, jostailu sinpleak ziren, baina garai hartako haurren artean jarduera fisikoa, interakzio soziala eta sormena sustatzeko eraginkorrak bilakatu ziren.



Haur bat baloiarekin Herrerako futbol zelaian eta Ramon Jauregi gaztea begira. 1962. EGILEA: TOMAS PAULIS.
ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA



Pinu-egurrez eginiko
jostailuzko kamioia. c. 1940



Jostailuzko josteko
makina, Casige marka.
EMAILA: REGINA FERNÁNDEZ



Marrazki bizidunen
proiektagailua, NIC marka.
c. 1940



Loteria jokoia, Enrique
Borrás y Cía Mataró
marka. c. 1940



Jauzkaria, Gorila marka.
c. 1960. EMAILEA: INIGO LANDA



COMAN BOYS PANPINA

1970eko Playmobil/Famobil enpresaren arrakasta ikusita, Comansi enpresa espainiarrak, Coman Boys izenarekin panpina batzuk sortu zituen, "blister" formatuan ontziratuta eta konpetentziako jostailuak baino merkeago merkaturatuta. Plastikoz egindako irudi txikiak ziren, pieza ahokagarriak, artikulatuak eta margotuak zituztenak. Izaera eta pertsonaia ugari zeuden: kirolariak, gergelariak, astronautak... "Son chulisimos!!" eslogana zuten ontzian idatzita.

IKAS MATERIALA

XX. mende Erdialdeko ikasleek diktadura frankistaren menpe zegoen hezkuntza-sistema bati aurre egin behar izan zioten, irisgarritasunaren, ideologiaren eta hizkuntza-aniztasunaren esparruetan zenbait debeku jasanez. Hamarkadak aurrera egin ahala, aldaketa politikoak tarteko, hezkuntza-sistemaren deszentralizazioa gertatu zen, hezkuntzaren gaineko kontrol autonomiko handiagoa ahalbidetuz. Horri esker, euskararen sustapena, curriculum-erreformak eta hezkuntza demokratikoago eta parte-hartzaileago baten ikuspegia gailentzen hasi ziren.

1940ko eta 1950eko hamarkadetan, ikasleek bizkarrean kargatzen zen larruzko motxilatxo batean eramaten zituzten liburu eta koadernoak. Heldulekuarekin eskuz eramateko larruzko maletinak ere erabiltzen ziren, eta merkeenak harri-kartoizkoak izaten ziren.

Boligrafoak 50eko hamarkadaren hasieran agertu baziren ere, ikasleek ez zituzten askotan erabiltzen; arkatzez edota luma/tintontziz idaztea orokortuago zegoen. Irakasleek, berriz, luma estilografikoa erabiltzen jarraitzen zuten.

Marradun edo koadro bidezko koadernoetan egiten ziren ariketak. Normalean, azalean eta kontrazalean biderkatzeko taula edo monumentuen edo ikuspegi panoramikoaren grabatuak ageri zituzten.

Oinarrizko ikasketetan liburu bakar batekin ikasten zen: Entziklopedia zeritzon eta irakasgai guztiak barne hartzen zituen. Goi mailako ikasketetan, berriz, ikasgai bakoitzerako liburu bana zegoen.

Goi-mailako ikasketetan eta Unibertsitatean, funtzio matematiko konplexuetan oinarritutako tresna batekin egiten ziren kalkuluak: kalkulu-erregela zen honakoa eta ingeniariartzako, arkitekturako eta beste lanbide tekniko batzuetako ikasleentzako ezinbesteko tresna zen. Ondorengo garaietan, 1970eko hamarkadan, lehen kalkulagailu elektronikoak agertu ziren. 80ko hamarkadatik merkaturatzen hasi zen ordenagailua 90eko hamarkadan orokortu zen, eta horrek erabateko iraultza ekarri zuen ikasketetan.



Santa Barbara auzoko eskola. 1971. Iturria: SAN PABLO PARROKIAKO ARTXIBOA. ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA



Gai anitzetako ikasketa-liburuak.



Telebista itxurako
arkatz-zorrozkailua, La
Mecánica marka. c. 1970

SU-ONTZI ERAMANGARRIA

Burdinurtuzko eta berde kolorez margoturiko ontzia, non hankak berotzeko barnealdean txingarrak sartzen zaizkion. Corneau Alfred Charneville markakoa da eta "Tamaño N°9" inskripzioa du. Eskolara eramateko balio

zuen, oinak berotu eta neguko egun hotzetan ikasgelako hotzari aurre egiteko. Ohikoa zen hamarkada hauetan eta aurrekoetan ikasle bakoitzak ikastetxera halako bat eramatea. Ikasgela hornituenetan tximinia bat egon zitekeen klasea berotzeko, baina kasu gehienetan eraikuntza publiko hauek nahiko hotzak izatea zen ohikoena. Horregatik su-ontzi honen gisako trikimailuak guztiz beharrezkoak ziren.



Duela gutxi, berriro ere halako pasarteak ikusi behar izan ditugu gure ikasgelatan, non COVID-19ak sorturiko pandemia egoeran, klaseko aireztapen egokia bermatzeko, neguan ere leihoak irekita mantendu behar izan diren. Hori dela eta ikasgelan bertan mantaz estalitako haurrak ikusi ditugu, bufanda eta eskularruekin lagunduta. Nork esango luke XXI. mende hasieran faltan botako genituela halako su-ontziak?

ERLIJIOA ETA SINESMENAK

Frankismoarekin Elizaren jarduera bera ez ezik, etxe esparruko erlijio-adierazpenak ere ugaritu egin ziren. Honela, etxeetako bazter guztietan erlijio katolikoari erreferentzia egiten zioten ikurrak ikus genitzakeen: sarrrerako atean ezartzen ziren Jesusen Bihotzaren edota Andre Mariaren txapak, adibidez.

Logeletan aitaren egiteko ur bedeinkatu ontzi bat izatea ohikoa zen, baita izaera erlijiosoko grabatu edo irudi bat oheburuan zintzilik izatea: gurutziltzatutako Kristoa, Gurutzearen Eraispena, Ama Birjina eta abar.

Jangelari dagokionez, ia ezinbestekoa zen bertan Kristoren Azken Afariaren erreprodukzio bat izatea, erliebean nahiz latoizko xafla zilarreztatu batean eginda eta marko handi batekin.


Ohitura zen baita ere irudi erlijioso bat barruan zuten egurrezko bitrina-kapera txiki batzuk etxe etxe eramatea; honakoek itsulapiko txiki bat zuten eta herri edo auzoko bizilagunen limosnak jasotzeko balio zuten.

Esparru pertsonalean, ohikoa zen lepoan domina bat janztea edota gainean eskapulario bat eramatea. Eskapularioa irudi erlijioso bat margotuta daraman bi oihalez osatutako objektu bat da eta zinta batekin batu-ta lepoan zintzilik eramaten zen.

Igandetan mezetara joatea guztiz orokortuta zegoen. Meza-liburu txiki eta lodi bat eramaten zen otoitzak jarraitzeko; ohitura zen liburu honen barnean Lehen Jaunartzeen eta gertukoenen heriotzen oroigarriak gordetzea.

Dena den, 1970ko hamarkadatik aurrera ideia se-kularizatu eta liberalagoen eragin gero eta handiagoa sumatu zen. Ezin ahaztu, berebat, erlijio formalarekin batera erlijiotasun herrikoia eta tokiko praktika eta si-nesmenak ere bazirela.





Eguberri eguneko meza San Jose Obrero elizan, José Luis Orellaren eskutik, Pedro Migel Ezkerraren eta Kike Muñozen laguntzarekin. 1969.12.25. ITURRIA: PEDRO MIGUEL EZKERRA. ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA



Bihotz Sakratuaren irudia duen ur
bedeinkaturako ontzia. c. 1950.

Ama Birjinaren
paretako irudia.
EMALEA: JAVIER CANTERA



Eskapularioa,
"Apostolado de la
Oración". c. 1940





Paretako gurutzea. c. 1950.
EMAILEA: JOAQUIN GARRIDO

KARMENGO AMA BIRJINAREN ETXE ATARIKO IRUDIA

Txapa baten gainean margotutako irudia. Irudikatuta duena Karmengo Ama Birjinaren irudi klasiko bat da: birjina koroatuta ageri da, Jesus haurra belaun batean eserita duela eta biek eskapularioa daramatela. Lau aingeruz inguratuta dago eta bere azpian, "Nuestra Señora del Carmen. Recibe hijo mío este escapulario. El que muera con él, no se condenará (Palabras de la Virgen a S. Simón)" inskripzioa darama. Honelako elementuak etxeetako atean jartzeko erabili ohi izan dira eta gaur egun ere ikus ditzakegu. Edertasun estetiko handia du irudiari eta koloreari dagokienez.



ETXEKO APAINGARRIAK

Etxe guztietan daude erabilgarritasun funtzionalik gabeko objektuak, eta xede bakarra dute: gelak eta etxea bera edertzea. Aldi berean, egunerokoan erabiltzen diren objektuak ere etxea edertzen laguntzen dute. Dekorazioak garai bakoitzeko gustuen arabera apaindutako objektuak barne hartzen ditu: koadroak, ispiluak, loreontziak, pitxerrak, altzariak... objektu ederrak dira, etxe bakoitzean ukitu pertsonala ematen dutenak.

Argazkigintza orokortzearekin, etxeak bertako biztanleen erretratuekin apaintzen hasi ziren. Tokiko profesional ezagunek eginak izaten ziren argazki hauek, eta gehienak tipologia jakin batekoak ziren: ezkontzako erretratuak, jaunartzeakoak, gurasoenak...

Urteen poderioz, industria-produktuak artisautza objektuak ordezkatzeko joan dira etxeetan.

ALTZA HERRIKO APAINGARRIA

Eskuz eginiko egur-txapazko paretako apaingarria. Altza herria zeneko elementuak ikus ditzakegu: Altzako ezkutua eta herriko zenbait lekuren irudiak. Honelako apaingarriek izaera pertsonala eskaintzen diote etxeari eta apaingarri soilak izatetik haratago, etxeko biztanleek memoria jakin batzuekin edota maite dituzten lekuekin lotura eta atxikimendua dutela adierazten dute. Halako elementuak bakanak dira, eta asko ezberdintzen ziren industria-produkzioetik sorturiko beste dekorazio elementuetatik.





Ume baten Jaunartzeko
erretratua. Figurski estudioa.
1932



Mahaiko
pendulu-erlojua.





Kolore horiko loreontzia,
La Mediterránea marka.

c. 1950. EMAILEA: JAVIER CANTERA



Plastikozko espezia-ontzi jokoa
bere euskarriarekin, Ta-tay marka.
c.1960.



El Mueble aldizkariko alea, 1964ko etxeetako dekorazioari buruzko azala duena. 60ko hamarkada.

ITURRIA: ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO ARTXIBO OROKORRA

